

Goi Eskola Politeknikoa

Albisteak

Ura & Hiria 2020

2014/05/07

Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko Industria Diseinuko eta Produktu Garapeneko Graduako 3. Mailako ikasleak, lehenengo seihilabetako POPBL-an egindako lanak erakutsiko dute. Proiektuaren helburua 2020. urtean hiri eta uraren artean egongo den problematika aztertu eta soluzio bat ematea da.

Erakusgai dauden proiektuak ura, hiri eta zehaztutako tendentzia batetik abiatzen dira. Erakusketan 14 lan eskaintzen dira eta zazpi kategoriatan banatzen dira: Connected, Women empowerment, Creative class, Ageing population, Transparency, Health&Wellness eta Smart technologies.

Lanak Donostiako San Telmo Museoan egongo dira erakusgai maiatzaren 6tik 11ra, goizeko 10:00etatik arratsaldeko 20:00etara.



Ura & Hiria 2020